



# Gizontasunak barriz hausnartuz

xa sencillamente  
transformar la realidad

"Ez gara emakume jaioten: egin egiten gara emakume", inoan Simone de Beauvoirrek joan dan gizaldiaren erdi aldera. Era berean, ez da gizon jaioten, ikasi egiten da gizon izaten. Bizi garan kulturaren emaitza gara neurri batean eta sozializatuz ikasten dogu emakume eta gizon izaten. Egokitu izan jakun genero-nortasunak asko baldintzatzen dau gure berba egiteko era, mobitzekoa, gure sexualitatea, aukeratutako lanbidea, gure zaletasuna, sinismenak eta munduan egiteko era. Gatxa izaten da eragile honeek antzematea eta naturalizat jotzen doguz.

Gure kasuan, planetako gizarte gehienetan lez, sozializazio-prozesua sistema patriarkalean oinarritzen da eta honek sistema erlijioso, soziopolitiko eta ekonomikoak zeharkatzen ditu. Gizonezkoaren agintaritzak eta buruzagitzan oinarritutako sistema honek gizontasun hegemonikoaren eredua edo "ideala" eskaintzen dau kultura bakotxean eta gizonezkoak, arrakastaz edo hain barik, horretara moldatzen saiatzen dira. Gure kulturaren, hauxe litzateke eredu ideala: gizonezko zuri, heterosexuala, klase ertainekoa, lan ona eta arrakasta dauana. Nagusi dan gizonezko-eredu honi atxikitzeak emoten ditu pribilegioak eta boterea, bai emakumezkoen gainean eta bai eredu nonetatik aldentutako gizonezkoen gainean, eta baira gure gizartea gidatzeko eta gobernatzeko erantzukizuna be.

## Gizontasun hegemonikoaren eraketa

Elisabeth Badinter antropologo frantsesaren ustez, gizontasunaren eraketa ezeztapen hirukotxetik gertatzen da:

- **Ez naz umetxoa:** ahultasunari, mendekotasunari uko egitea eta indibidualismoaren aldarrikapena litzateke. Gizonezkoak euren kabuz moldatzen dira eta ez dabe inoren beharrik. Eurek erabagiten dabe eta menderatzaileak dira. Gizontasun klasikoaren berariazko indibidualismoa independentzia edozein prezioz defenatzean datza. (Kapitalismoak generoa dauala susmatzera garoaz honek?)
- **Ez naz homosexuala:** Gizonak maitatzeari eta gizonak maitatua izateari uko egitea litzateke. Homosexualtzat hartua izatearen bildurra dau, horrek gizonezko lez egiaztatzen dauana galtzera eta "bigarren kategoriako gizon lez" ikustera eroango leukelako. "Maritxu" esaten jako, dalako joera sexual jakin bat dauanari eta baita gizon lez "mailarik" ez dauanari be. Gizontasuna

"susmagarri" bihurtu daiekien edozein egoera eten barik zelatzen da.

- **Ez naz emakumea:** Gure gizartearentzat emakumezkoek irudikatzen daben guztia atzera botatzea litzateke. Emakumezkoaren ezaugarriak bigarren mailako kategorian dagoz eta saihestu egin behar dira: maitasuna adierazo, norbere burua eta besteak zaindu, mendetasun afektibo eta ekonomikoak, samurtasuna... Ostera, gizontasun-ereduak bestelako ezaugarriak nork bere egitea ekarriko leuke: indarra, arriskua, independentzia, jarduera logikoak edo trebetasun fisikoak eskatzen dabenak egitea...



Beste era batera esanda, gure gizartean, gizonezkoaren nortasun hegemonikoaren oinarri nagusiak indibidualismoa, homofobia eta misoginia litzatekez. Honek ez dau esan gure ez dala beste era bateko gizontasun alternatibo edo mendekorik sortzen, baina eredu hegemoniko hau da nagusi gizonezko eta emakumezko gehienek jokoan.

Hona hemen, gizonezkoaren ohiko nortasunaren eta emakumezkoaren ohiko nortasunaren arteko alderik esanguratsuenetakoak: gizonezkoek behin eta barrero erakutsi behar dabela gizonezko dirala arriskuaren, nagusitasunaren, jarduera sexualaren... bitartez. Honi dagokionez, gizontasuna boterearen eta gainerakoengan miresmena sortzeko gaitasunaren bidez neurtuko litzateke.

## Gizontasun hegemonikoaren ondorioak

Gizontasun heteropatriarkalaren eredu honek iraun izanak, "indarkeriaren hirukoa" eragin dau, Michael Kaurmanek proposatzen duan lez:

**Emakumezkoen (eta neskatu eta mutikoen) aurkako indarkeria:** era askotako indarkeriaren, gehiegikeria eta kontrolaren -fisiko, psikologiko, sinboliko, ekonomikoak...- bitartez. Azken urteetan aurrerapenak izan badira be arlo legal eta formalean, indarrean dagoz gure gizartean emaku-

meen aurkako era askotako indarkeriak. Kasu askotan, gainera, hain dira zoliak non antzeman be ez diran egiten, mikromatxismo deitutakoakaz gertatzen dan lez. Emakumezkoaren ezaugarriek sinbolizatzen dabean izadiaren aurkako indarkeriak be hementxe sartuko litzatekez.

**Beste gizonezko batzuen aurkako indarkeria:** gizonezkoen arteko indarkeria edo mehatxua umetatik erabilten dan mekanismoa da ordena hierarkikoa ezartzeko. Gizonezkoen arteko boterezko hartu-emonak, beraz, irain, presino eta indarkeriaz beteta dagoz. Hilketeta edo lesino gehienak gizonezkoek beste gizonezko batzuen aurka eragiten dabez.

**Euren buruaren aurkako indarkeria:** Euren buruaren zaintze fisiko eta psikologikorik eza, drogak hartzea, gizonezkoen suizidio-tasa handiak, arriskuaren kulturak eragindako ezbeharrak, eskola-porrota...

### Gizontasunei buruzko azterlanaren emaitzak

Aken hamarkadetan egin izan diran gizontasunei buruzko azterketak jakintza-alorretakoak izan dira.

Batez be aitagarriak dira hezkuntzaren arlotik jasotako ekarpenak, eskolak sozializatzerako eremu lez dauan garrantzia kontuan hartuta. Hainbat alderdi aztertu izan da,

esate baterako: gizonezkoen jokaerak sexualitateari eta indarkeriari dagokienez, hizkuntzaren zeregina, gizonezkoen eskola-porrota, mutilen jardunbide sexistak geletan eta jolas-tokian, irakasgaiak berrantolatzeke era, curriculum-ibilbideen aukeraketa, e.a.

Azterlan honeei esker, baterako hezkuntzaren ikuspuntua txertatu izan da eskoletan, bazterketa eragiten dabean mekanismoak desagerrarazteke helburuagaz, ez eskolaren egitura formalean bakarrik, baizik eta ideologia eta hezkuntza jardunbidean ere. Benetako bardintasunezko giroan eta sexuaren araberrako baldintzatzaile barik, ikasle guztiek, neska zein mutil, euren nortasuna askatasunez garatzea da helburua. Horrek, beraz, aurretik genero bako txari beren-beregi egotzi izan jakozan kultura ereduak bat egitea eskatzen dau. Persona guztiek bere egin daikiez gizontasunari edo feminitateari lotutako jokaera eredu positiboak, eta osoko garapenerako eta gizarte zuzenagoaren eraikuntzarako oztopo diran genero bati ala besteari egotzitako jokaerak alde batera itzi daitekez.

Ordua da sexuan oinarritutako biko banaketa hori gainditzeko eta geure burua persona oso, aske eta infinituki anitz lez, gu geu zorioneko izateke eta besteak zorioneko egiteke gure ahalmen guztiak garatzeko gauza dan persona lez ikusteko.

### EZ ZAITEZ BESOAK UZTARTURIK GERATU:

- ✓ Zuzendu bildur barik inguruan ikusten dozuzan jarrera homofoboak, misoginoak eta indibidualistak. Ez dabe gizarte hobea eraikitzen laguntzen.
- ✓ Antzeman emakume, mutiko eta neskatoen, beste gizonezko batzuen eta zeure buruaren aurkako jarrera kaltegarriak eta holakorik ez egiteke proposamena egin.
- ✓ Saiatu zaitez ohituraz zure generoari ez lotutako jokaera positibo bat gauzatzen eta hausnartu: Zelan sentitu zara? Ze ondorio izan dau? Ze erantzun izan dozu inguruan?

### ETA HAUSNARTZEN JARRAITZEKO:

- Gizonduz dalakoaren web orrialdean gizontasunei buruzko hainbat **baliabide** dago.
- **Irakurgaia:** “Nuevos hombres buenos. La masculinidad en la era del feminismo”, Ritxar Baceterena (2017).
- **Bideoa:** “Tú también” (Youtube).

### Gizontasun barrien ezaugarriak

- 1.- Emakumezkoakaz batera garatu errealdarearen kontrola.
- 2.- Boterea ez erabili besteak menderatzeko
- 3.- Lanaz eta familiaz bardin gozatzearen alde burukatu.
- 4.- Etxeko lanak eta seme-alaben zainketa banatu.
- 5.- Emakumeakaz eritzi berekoak izanagaitik gizontasuna mehatxatuta ez ikusi.
- 6.- Homosexualitatea gizontasunerako arriskutzat ez jo.
- 7.- Seme eta alabei hezkuntza sexista eta homofobikoa eskaintzearen aurka azaldu.

